




## **4.DIRU-ITURRIAK**

Izango dugun aurrekontua **hipotetikoa** izango da.

Gure ideia Sestao-ko polikiroldegian egitea da beraz, suposatu dugu Sestaoko polikiroldegiak ordaindu behar digula makinak dituzten bateria bakoitzeko 256€ eta bateria kontadore batera konektatuta egon behar denez, kontadore bakoitzeko 190€ eman behar dizkigute. Bateria bakoitzaren iraupena urte batekoa izango da eta epe hau amaitzean bateria aldatu behar da kontadorera berriz konektatzeko. Eta horrez gain, gure ideia praktikan jartzeagatik kuota bat ordaindu behar digute 450€-koa. Excel taula batean kalkulatu ahal ditugu gure diru-sarrerak nolakoak izan ahal diren ikusteko.



**Makinako bateria**



**Kontadorea**

Dirua lortzeko **hainbat iturri** ditugu:

Bazkideen ekarpena guztira 10.000€-koa izango da, lau bazkide garenez, bakoitzak 2.500€ jarriko ditu. Espainiako gobernuak 7.000€-ko laguntza emango digu proiektuarekin hasteko, gazteak garelako eta ideia ekologiko bat sortu dugulako. Behargintzako proiektua arrazoi berdinegatik 3.000€-ko laguntza emango digu eta talde ekologistak haien helburuekin lotuta dagoen proiektua sortzeagatik 5.000€ emango digu. Amaitzeko, Crowdfunding-netik baliteke diru laguntzak jasotzea ideia berriztatzailea delako. Baina, zehatz- mehatz ezin dezakegu esan Crowfoundening-netik zenbat jasoko dugun. Crownfounding-en bitartez lortu nahi duguna da gure helburu ekologikoa bultzatzea da. Modu horretan, jendea bultzatuko dugu energia garbia sortzera gaur egun ditugun arazoak konpontzeko.



